

**BANAKAKO MODALITATEKO EDO MODALITATE
ELKARTUKO BORONDATEZKO GIZARTE-
AURREIKUSPENENKO ERAKUNDEETAKO BAZKIDEEI EMAN
BEHARREKO INFORMAZIOA, OGASUN ETA FINANTZETAKO
SAILBURUORDEAK UZTAILAREN 4AN EMANDAKO
EBAZPENAREN HARIAN, NON INTERPRETAZIO-IRIZPIDEAK
APLIKATZEKO JARRAIBIDEAK EMATEN DIREN, BGAE-EN
OTSAILAREN 23KO 5/2012 LEGEAREN 23. ARTIKULUKO 1.
PARAGRAFOKO A) IDATZI-ZATIA BALIOGABETZEARI
DAGOKIONEZ**

BGAEen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 23. artikuluko 1. paragrafoko a) idatzi-zatia baliogabetzeari dagokionez interpretazio-irizpideak aplikatzeko jarraibideak ematen dituen Ogasun eta Finantzetako sailburuordearen uztailaren 4ko Ebazpenak hirugarren jarraibidean dio bazkideei banan-banan jakinarazi behar zaiela zer egoeratan dauden, 2014ko uztailaren 4aren aurretik haien aurreikuspen-planetan egindako ekarpenak erreskatatzeko eskubidea dela eta.

Idazki honi atxikita, banakako modalitateko eta modalitate elkartuko BGAEek beren bazkideekin erabili behar duten ziurtagiri-eredu bat (1 zk.) eta, behar izanez gero, Prestazioen Araudiaren eranskin-eredu bat eskaintzen dira, aipaturiko ebazpen horretako hirugarren jarraibidean esaten dena betetzeko.

Borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundeek aurreikuspen-planeko *Prestazioen Araudiaren Eranskina* bidali beharko diote Finantza Politikako eta Erakundeen Baliabideetako Zuzendaritzari, Euskadiko BGAEen Erregistroan sar dezan.

Horrekin batera, bazkide titularrari bidali behar zaio bai erreskate-eskubideari eusten dioten zati alikuoten kopuruaren gaineko ziurtagiria, bai aurreikuspen-planaren eranskina.

Bi komunikazio horiek lehen aipatutako uztailaren 4ko ebazpen horretan ezarritako epean egin behar dira.

Bestalde, baldin eta bazkideak edo onuradunak erreskate-eskubideari eusten dioten zati alikuotak osorik edo partez BGAE bereko beste aurreikuspen-plan batera edo beste entitate bateko aurreikuspen-plan

integratu batera eskualdatzen edo mobilizatzen badituzte, zati horiek erreskatatzekoak direla jakinarazi beharko dio jatorrizko BGAEak destinokoari. Destinoko BGAEak beste ziurtagiri bat emango dio bazkideari, eta horretarako 2 zenbakiko ziurtagiri-eredua erabil dezake.

Vitoria-Gasteiz, 2014ko uztailaren 15a

**FINANTZA POLITIKAKO ETA ERAKUNDEEN BALIABIDEETAKO
ZUZENDARITZA**

1 ZENBAKIKO ZIURTAGIRI EREDUA

..... jaunak/andreak, _____
borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen ordezkari gisa
(IFK: _____; egoitza soziala: _____;
Euskadiko BGAEen Erregistroan duen inskripzio-zenbakia: _____),

ZIURTATZEN DU

..... jaunak/andreak, _____ BGAEko bazkide denak,
2014ko uztailaren 3an _____ zati alikuota dituela
_____ izeneko aurreikuspen-plan banakakoan/elkartuan. Zati
alikuota horiek erreskate-eskubideari eusten diote, zeina _____
aurreikuspen-planaren prestazioen araudiko ____ artikuluan jaso baitago.

_____n, _____ko _____ren _____

Izpta: _____

ARAUDIAREN ERANSKI-EREDUA

BGAE ENTITATEAREN

AURREIKUSPEN-PLANAREN ARAUDIKO ERANSKINA,
BAZKIDEEN ERRESKATE-ESKUBIDEA DELA ETA

Konstituzio Auzitegiak 2014ko ekainaren 12an emandako 97/2014 epaiak dioenez, 2014ko uztailaren 4tik aurrera aurreikuspen-plan honetan egindako ekarpenei dagozkien zati-alikuotek ez dute erreskate-eskubiderik izango Borondatezko Gizarte-Aurreikuspeneko Erakundeen otsailaren 23ko 5/2012 Legearen 23.1.a) artikuluan zehaztuta bezala, atal hori baliogabetzat jo baita.

2014ko uztailaren 3an bazkide bakoitzak aurreikuspen-plan honetan esleiturik dituen zati alikuoten kopuruak eutsi egingo dio prestazioen araudi honen _____ artikulua aipatzen duen erreskate-eskubideari.

Bazkideak ziurtagiri bat jasoko du, erreskate-eskubideari eusten dioten aurreikuspen-plan honetako zati alikuoten kopurua adieraziko duena.

2 ZENBAKIKO ZIURTAGIRI EREDUA

..... jaunak/andreak, _____
borondatezko gizarte-aurreikuspeneko erakundearen ordezkari gisa
(IFK: _____; egoitza soziala: _____;
Euskadiko BGAEen Erregistroan duen inskripzio-zenbakia: _____),

ZIURTATZEN DU

..... jaunak/andreak, _____ BGAeko bazkide
denak, _____ zati alikuota dituela _____ko _____ren _____an,
_____ izeneko aurreikuspen-plan banakakoan/elkartuan, hain
zuzen ere erreskate-eskubideari eusten dioten BGAeko _____
aurreikuspen-planeko _____ zati alikuota mobilizatu/eskualdatuei
dagozkienak.

_____n, _____ko _____ren _____

Izpta: _____